

# Somewhere from here to heaven

Bruce Baillie

Ben  
Rivers

Eduardo  
Williams

Apichatpong  
Weerasethakul

Ana  
Vaz

"There were ages of faith, when men made connections between themselves and the place in which they lived, the plants they cultivated, the fuel they used for warmth, their beasts, and their ancestors. My work will be discovering in American life those natural and ancient contacts through a contemporary form, the motion picture."

-- Bruce Baillie

ERAKUSKETA • EXPOSICIÓN • EXHIBITION } 2022 28 URRIA OCTUBRE OCTOBER } 2023 26 OTSAILA FEBRERO FEBRUARY  
GARBIÑE ORTEGA: KOMISARIOA • COMISARIA • CURATOR

Bilbao

AZKUNA ZENTROA  
ALHÓNDIGA BILBAO

SOMEWHERE FROM HERE TO HEAVEN erakusketak Bruce Baillieren film-unibertsok inspiratutako belaraldi ezberdinetako artisten konstelazio bat delaun du. Bruce Baillie ezinbesteko zinemagile bat izan zen 1960ko hamarkadan: abangoardia zinematografiko iparramerikarraren garrantzitsuenetako bat eta zinema esperimentalta delakoaren sustatzaile handi bat. 1961ean, Bailliek beste lagun zinemagile batzuekin batera, emanaldi bat antolatu zuen Canyoneko (Kalifornia) etxe batean, "beste inon ongietorrian ez ziren filmak" erakusteko, "beste hori bakarrik bazen egintza iraultzaile bat une horretan. Keinu espontaneo horren ondoren, komunitate handi bat sortu zen. Horrek, bada, San Francisco Cinematheque elkarte eta orain arte munduko abangoardia-zinemaren banaketa-enpresa garrantzitsuenetako bat den Canyon Cinema kooperatiba sortu zituen.


Erakusketak bi zati ditu. Lehen komunitate horrek –Bailliek eta Chick Strandek, Gunvor eta Robert Nelsonek, Lawrence Jordane eta beste batzuek–, 1940ko eta 1950eko hamarkadetako ekimenek inspiratuta, oraindik ere bizirik dagoen "familia" zinematografiko zirrargarari eta estimulagarria sortu zueneko garaira hurbiltzen da.

Erakusketaren bigarren zatia Azkuna Zentroak Baillieren iruditeriak inspiratuta lan berriak sortzeko gonbidatu dituen lau artistaren lana hartzen du. Hona aipatu artistak: Apichatpong Weerasethakul (Thailandia), Ben Rivers (Erresuma Batua), Ana Vaz (Brasil) eta Eduardo Williams (Argentina). Ikus-entzunezko piezak egin dituzte Bruce Baillierekin eta haren filmen (*Valentin de las Sierras*, *Here I Am*, *Mass for the Dakota Sioux* eta *All My Life*, besteak beste) unibertsorekin elkarriketatzen. Lan berri horien gain, erakusketak J.P. Sniadecki zinemagileak ex profeso egin duen pieza bat aurkezten du: azken urteetan Brucekin bizi izandako une intimoez betetako film bat, Baillie-ren beraren amaitu gabeko film baten irudi argitaragabeekin.

Baillieren 16 mm-ko film liriko eta behatzaile horiek guztiak, baita lau artista horien lanek ere, edozein genero edo kategoriatu saihesten dute, eta, era berean, alderdi mistikoa eta mundutarra, kosmikoa eta pertsonala, mitologikoa eta autobiografikoa uzartzeko interesa partekatzen dute. Etengabeko bidaiak, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espirituala aurkitzeko bultzada dira proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk, artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakon batek sostengatuta. Ideia hori artista hauen praktikaren erdigunean dago.

Garbiñe Ortega

Max Goldberg



Bruce Baillieren argazkia Yosemite (Kalifornia)

**Botere jainkotiar batek gogo honetan eta gorputz honetan lan egiten du. Eta gizon, gogo, landare eta gauza guztietan lan egiten duen bera da. Mundu osoa, ekintza jainkotiar eta autoadierazpen mailakatu baten tresna berdin gisa.**

Notebooks, Bruce Baillie. 1970eko ekaina-uztaila.

Bruce Bailliek (1931-2020), Canyon Cinema-ren sortzaileak, zinemaren historiako lan bikainak eta kontrakultura zinematografiko oparoa sortu zituen. 2020ko apirilean hil zen Camano Island-eko bere etxean, Canyon-en (Kalifornia), la 60 urte lehenago, lagunei eta bizilagunei harrera egin ziren hor lehen aldiz, bere atzeko patioan gauetz zinemaz gozatzeko. Denbora asko igaro ondoren, Bailliek Canyon Cinema jaiotzeko istorioa kontatu zuen, dauden aukerei zabalik zegoen ikuspuntu berri batetik. "Baztertu ezarritako formak, asmatu orain behar dituzuenak", aholkatzen zien Canyon Cinemanews-eko iruzitelei 1976an. "Izan ere, horrela sortu zen Canyon Cinema".

Hemen jaso dira Bailliek Canyon Cinema-ra egindako bidalketa ugarietako batzuk, Chick Strand-ekin batera sinatutako 1962ko iragarki batetik hasita. Material horren zatirik handiena Canyon Cinemanews-ekoa da. 1962an kaleratu zen buletin horren helburua zen mugimendu zinematografiko independente hasiberri bati buruzko "informazio laborua" eskatzea eta zabaltea. Canyon banaketa-kooperatiba gisa formalki eratu baino urte batzuk lehenago, Cinemanews-eko orrialde alaiak agerian utzi zuten bazela kontuan hartu beharreko zinemagile-komunitate bat.

Baillieren sinadura ez zen Cinemanews-eko oinarritzko elementu bihurtu, hariak eta bere filmekin biderei ekitza erabaki zuen arte. Horregatik, Mendebaldeko itsasaldeko hainbat lekutan bizi izan zen. *Quijote* (1965), *Castro Street* (1966), *Valentin de las Sierras* (1968), *Quick Billy* (1970), *Roslyn Romance (Is It Really True?)* (1974) eta beste film klasiko batzuk ezagutzeko aukera eskaintzeaz gain, gutunek informazioa ematen dute pelikulen stockei, ametsetako ikuspenei, hotzeria arruntei eta erdipurdiko zinema-emanaldiei aurre egiteko erremedioei, beharra duten lagunei eta komunitatearen itxaropenei buruz. Frantziakotarren xumetasunez, Bailliek lehen printzipioak aipatzen ditu beti: «Gozatzen dut NEWS-en berriz esaten, mundu guztiak oharrik bidal ditzen egiten, ikusten, sentitzen ari denaz», idatzi zuen 1967ko amaieran. «Ohartzen zarenean, bitxia da ikustea zenbat jendek gutxien duen zer den, la inork ez du bere burua ospatzen, pentsatzen duena bidalita». Handik urte gutxira idatzi zuen:

«News-en gauza asko asmatzen genituen, horregatik sentitzen ginen hain ondo garai haietan... Zeregin gehiegiz duzunean, dena berdin ateratzen da. Bizitza ireki baten gorabeherak behar dira».

Baillieren gutunek bide hori marrazten dute, zinema independente baten idealak bizitako esperientziaren arabera transmititzen. Orrialdetik jauzi egiten duena da askatasun-sentsazio bizia, bai gai garrantzitsuetan, bai garrantzi txikiagoko beste batzuetan. Gutunen bidez eraz ikusten da zergatik izan zen hain garrantzitsua Baillieren eredu kementsua kamera bat hartu eta horrekin bizitza aurrera atera nahi zuten zinemagile gazteenentzat. Harena bezalako ahots bat ez da inoiz zahartzen.



Fotograma For Bruce, Apichatpong Weerasethakul. (2022)


Bruce, Peruko bidaiaren amaierara hurbiltzen ari nintzen, COVIDetik suspertzen, bularrean mina nuela, Amazoniako oihan batetik nenbiela. Koloreen bizitasunak, lurrikre eta mugimenduek zentzumenak pitu zizkidaten. Inurriak, txoriak eta tximinoak beren ziklo eta habitateetan hazten eta eboluzionatzen ziren zuhaitzen goialdean eta lurreen, lurrezko bideetan. Berandu zela, erreka txiki bat aurkitu nuen, lokartutako suge bat bezala bihurtzen zena. Oihan sakonetik igarotzen zen, soilgune batera iritsi arte, eguzki kiskalgariaren azpian zurezko zubi bat zegoen lekura. Argiak diraldi egiten zuen azpitik igarotzen zen ibaia zeharkatzean. Itzalean eseri nintzen, zomorro jakin-nahiei agur eginez eta aire epelaz gozatz. Zubi xumea isilik zegoen, inguruko guztia entzuten ari balitz bezala. Bruce, zeu zinen zubia, itzalak proiektatzen eta espazioak lotzen zituen behatzailea. Eguzkiarekin hizketan ari zinen, Nire kamera atera eta saiatu nintzen bertan hartzen.

Inork ez zekien noiz eraiki zuten zubia. Belaualdiz belaualdi konpondu dute. Oihanaren sakonean komunitate indigenak egon ohi ziren, eta bidezidior gisa eraiki zuten ibai nagusira iristeko, Peru eta Bolivia zeharkatzen dituen Madre de Dios ibaira. Bidezidiorra merkataritza, komunikazio eta kolonizazio bide baten gisakoa zen. Oihan horretan, ibaiaren ertzetik gertu, etxalabe bat, eskola bat eta ospitale bat izan ziren lehenago, Espainiako estabuzimendu batekoak. Zubitik ez oso urrun, badira oraindik eraikinak, ale-siloak eta itsasontzi-helize bat, baita hondoratuko bapore bat ere, Werner Herzog-en inspirazio iturri izan zena Fitzcarraldo (1982) filmean.

Inguruko istorio guztiak gorabehera, oharitu nintzen zubiak ez duela oroitzapenik sortzen. Ez du ez hasierarik ez amaierarik: bate-ratu egiten da. Norabait iristeko gurutzatzen duzu, baina egiturak berak ez du helmugarik. Atzeritar gisa, ez nuen etxea deitzeko moduko lekurik ez alde batean ez bestean. Oihanak eta portuak ez zuten esanahirik niretzat. Batasun-sentsazio batek erakarri ninduen zubi horretara eta zugana, bere planteamendua presentzian ardatzen duen zinemagile gisa.

Urtaro hezean, urak zubia gairitzen du. Kulunkatu eta arrainen ondoan dantzatzen du. Handik hilabete batzuetara, eguzkirantz, zuhaitzatarantz eta txoriegana goratzen da. Dardara egin eta argia barreiatzen du norabide guztietan. Ez-leku horretan filmatu nuen eta sentitu nuen zure barruan desagertua nintzela. Zure erretratu hau eskaini nahi nizun opari gisa, bilaketarik ez egiteko zure izpirituari egindako keinu gisa eta esker onez ikusteagatik.


Apichatpong Weerasethakul



Fotograma The Minotaur: Ben Rivers. (2022)

Menorca uhartean abandonatutako eta eraldatutako harrobia den Lithica-ren inguruan filmatutako pelikula Minotauru gaztearen istorioa kontatzen du, baita bere adineko haurrekin adiskidetzeko huts egindako saiakerak ere. Tragedia honek Bruce Bailliek mitologiarekiko eta zinema mutuaeren narrazioarekiko zuen maitasuna du oniarrian, baita *Here I Am* (1962) filma ere, Kaliforniako eskola espezializatu bateko haurren erretratu ederra dena. *El Minotauru* film luzeago baten parte izango da, haurrek bakarrik osatutako mundu batean egindako film horretan, haurrek beren bizitza, errituak, jolasak eta bidaiak bizi dituzte.

Ben Rivers



Ben Riversek Bruce Baillieri idatzitako postala (2015)

*Ia ez daukat informaziorik gorderik nire burmuinean. Hala nire bizitza nola nire artea guztiz dira "ez informatiboak". Filmak oso tesi kritiko gogorra du: gizarte garaikidearen, eraikinen, kutsaduraren (eta gainerako gauzen) aurka eginda dago eta gozamenaren (zeina, guztienez, naturan, indibidualtasunean eta humanitatean inplikaturta agertzen baita) alde!*<sup>1</sup>


Aspaldi honetan, digestioan pentsatzeak eredu gisa hartzen dut inguratzen nauena xurgatzeko modu bat ulertzeko. Instituzioetan nekatuta, azterketen edo azalpen-testuen bidez zer ikasi zen eta zer ez egiaztatzeko beharraz, erabaki nuen fidatzea kontsumitzen dudana eta digeritzeko dudan moduaz. Horrela, filmak, testuak eta esperientziak modu organikoagoan nire parte izan daitezkeela sinestea. Ez ditut ikusi nituen filmak gogoratu nahi, ezta bakoitzak zehazki izan zuen eraginaz jabetu nahi ere. Oso ona da pentsamendu-sistema hori jarraitzen duen jendea egotea, baina, era berean, ona eta beharrezkoa da pertsona batzuk filmak edo beste lan batzuk beste nonbaitetik egitea. Ezagutza eta esperientzia xurgatzeko modu desberdinak. Horrela garatu nuen Bruce Baillieren obrarekin lotuta dagoen lan hau. Bere pelikula ikusi eta elkarriketak irakurri ondoren, sentsazio eta pentsamendu intuitiboek gidatu ninduten, baita denboran garatzen jarraitzen diren pentsamenduek ere. Ez nuen bere lana nirearekin modu kontziente eta analitikoan uzartu nahi izan. Espero dut, nire bideoa amaïtutakoan, konexioak agerian egotea niretzat eta ikusten dutenentzat. Garrantzitsua izan zen niretzat berriz bakaradecan lan egitea eta bideoa egiten ari naizen bitartean deskubritu ahal izatea, irudiak eta soinuk probatuz, hausnartzuz eta berriz probatuz, ekoiztu aurretik pentsatu beharrene.

*Tira, nik neuk jakingo dut filmak nola egin.*

*Artea eta mitok dira gure identitatea, prozesua eta historia islatzen dutenak. Poetaren bideari jarraituko diogu: bide bakartiak oroimenaren gune ilun eta elur-antzekoen barruan... eta zerumuga ezezagun bat.*

1. Testu honen letra etzanak Bruce Baillieren aipakur dira.

Eduardo Williams



Fotograma Un Gif Largasimo: Eduardo Williams. (2022)

A ÁRVORE /

ZUHAITZA.

IPSA SONANT ARBUSTA<sup>1</sup>

2018ko urrian, aldaketa politikoa, intimo eta existenzial izugarrien urtean, egunkari bat filmatzen hastea erabaki nuen. Praktika zinematografikotik askatu nahi nuen, etengabeko proiektio- eta antzeppen-ariketa den aldetik, eta topo egin nahi nuen bizitza bere egunerokotasun apartan gauzatuko zuen zinema bizi batekin, normalean bazterrean, pelikula baten ertzean garatzen den guztiarekin. Gero eta gehiago bilatzen nuen nik, *antzeppen zinema* deitu beharrene, *adierazpen zinema* deituko nuen. Gidoirik gabe, proiektiorik gabe, idazketarik gabe, errebelatu arte zeluloidean gordeta geratuko ziren bizitzako une batzuen konplize bihurtuko zen kamera – irudiaren metabolismo moduko zerbait, non filmatzea bizi-ariketa metaboliko bat besterik ez zen izango. Horrela, irudiak irudi-itxurako energien –energia espektral, historiko, afektiboen– hartze huts bihurtuko lirateke.

Idea horiek gogoan, azken urteotan filmatu izan ditut zeluloidearen eta bizitzaren arteko topaketa markatzen duten distira txiki horiek, zine-erritual txiki batzuetan. Ariketa oso praktika erregularra eta aski instintiboa da. 2020an lehen filma muntatu nuen, egunkarirako grabatutako lehen irudi-erritualak oinarri hartuta. Filma, nire harriurarako, metamorfosiaren lehen erritu bihurtu zen. *Pseudosphynx* lanean (2020), gertakari politiko suntsitzaile baten erdian [2018ko hauteskundeak, Brasilen eskuin muturra boterera eraman zutenak], hamar bat suzko beldar agertu ziren, sorgin<sup>2</sup> bihurtzeko eta, beren animalia-sorginkeriarekin, zerumuga politikoa osoa eraldatzeko prestatzen, zeharkatu nituen lekuak jositik: Paris, Brasilia, Serra dos Pirineus eta Lisboa.

Filma trantze labor eta bizia bihurtu zen, non ekintza magiko batetik abiatuta eguneroko bizitza erritu bilakatzen den. Gogoratu behar da magia zera baizik ez dela, *erreala* deitzen duguna eraldatzea lehen han ez zegoen zerbait bihurtzeko (agian han izango zen, ezkutuan, lotan edo ikusezin, ekintza-erritu magikoa gertatu arte). Gaur egun, nire uestez, egunkari horiek agian magia-ariketa moduko bat dira eguneroko bizitzan, Bruce Baillie besterik ez –pentsatuko nuke geroxeago–.

Orduan, eguneroko magia-ariketa horietatik abiatuta, Garbiñe Ortegaren gonbidapena onartu nuen, hainbeste maita nuen Bruce Baillieren oroimenaz pentsatu, filmatu eta oharatzeko. *Somewhere from here to heaven* erakusketazela zela-eta. Bere esku zabaltasun, poesia eta elkartzeko nahiarekin, Brucek belaualdi abangoardista eta intelektual baten zinema eraldatu, eta zinema gorputzuan, intimo eta ia periodistiko bihurtu zuen. *Lehen pertsona* ukatzen ez duen zinema. Bere pelikuletan, Bruce beti egoten da *hor*, bere pertsonaia dauden leku doian: hesiak, behizanak, indigenak, erleak, astoak, haurrak, gutunak edo motozikletak, bera beti egoten da *filmatzen duen zeraren ondoan*. Bruce gogoan, uste dut hori dela bere ezaugarriarik handiena: filmatzen duen mundura entregatzeko gaitasuna, *frame*, leku edo inpresio bakoitza gorputzez hornitzeko gaitasuna.

*Lehen pertsonako zinema* da, eta azken mendeko arrazionaltasunak ukatu egin du hori, hala urrutizearen alde eginez, nola izateko eta bestea eta mundua, behatzeko modu pribilegiatu gisa.



Fotograma A Árvore: Ana Vaz. (2022)

Gonbidapena jaso ondoren, bere zinema guztia berriz ikustea erabaki dut. Plano bakoitzak eraman nazan utzi dut eta ezinezkoa iruditu zait Bruce Baillie –irudiaren poeta– bezalako pertsona duin baten film bakar batetik abiatzea edo omenaldi bat egin ahal izatea, elegia gisa. Nik uste dut berak gorrotatuko lukeela horrelako zerbait: ikono, monumentu, heroi gisa ikus dezaten uzteta. Egin zuen zinemaren bidez etengabe ukatu zuen hori. Horregatik, elegia baten ordezt, gogoeta egiten dut haren arimaren eta zinemaren formaz batez ere, eta haren keinuen sinpletasunaz, Bruce Baillieren *ondoan* –eta ez haren aurrean, ez atzean– filmatutako pelikula gogoan izateko.

Film berri honetarako, jotzen dut *All my life* drama perfektuko sintesi historikora, *Mass for the Dakota Sioux* filmeko dolo eta auhenera, *Tung* filmean dantzatzen duen gorputz batenganako maitasunera, *Mr. Hayashi* filmeke erretratu mistikora, *Valentin de las Sierras* filmeke ezinezko mugara eta *Quixote* argirikorik mendebaldeko muga aurrera egiteko desirara. Badirudi film horiek guztiak bat batean agertu eta hizketan ari direla *A Árvore* jaioberriarekin, nire aitarekin –artista, musikaria eta basoko mistiko Guilherme Vaz-ekin– elkarteko film-erritualarekin. Gizon horrek mugan bizi eta gogoeta egin zuen mugaz, lurreko herrietan modernitateak izandako zorigaitzoko aurrerapenak; arnasa hartzen zuen bezala idazten zuen musika, zinema bere "aita espirituala" gisa hartu zuen eta, batez ere, bere obrarik handiena baltitz bezala bizi izan zuen bizitza. 2007ko udaberrian Rio de Janeiroan idatzi zuen testu eder baten pasarte bat aipatuko dut hemen. *Três ventos: dois vótuos e uma espada*:

1. Zinema arte martzial gisa

Bi haizeren artean hutsune bat dago. Hortik irristatzen da ezpataren begirada. Mugimendu horrek sortzen ditu zinemako ekipaok, gauzak sortu aurretik. Zinema beste guztia baino lehenago existitzen dela diogu, beti egon delako haizea bi hutsuneren artean edo hutsunea bi gauzen artean eta zabal hedatutako filosofia arkaikoa. Bi liburu ki edo bi haizeren artean dago begiradaren lurralde nagusia, eta *ekaitz zinematografikoaren* nozioa, ikusten duen gogoarena. Gogoia objektuen inguruan bueltaka badabil, ez ditu ikusten. Horiek duten *hutsunean sartzen* denean baizik ez du egiten. Seminalak, Objektu bat gizarte bat izan daiteke eta hutsune bat izan behar du erdigunean. Zenbat eta trinkoagoa izan objektua, orduan eta ezkutuago egongo da hutsunea. Baina denek daukate. Irudi horiek keinu bakar batean batzeko, *hutsuneak itsastzen* jakin behar da. Itsaitako hutsuneak keinu bakar bat osatzen dute, non gertariak bira oso bat egiten duen bere ezpata luzearekin zirkulu bakar batean. Burua mozteko, ebakutzeko eta bataiatzeko zirkulu horien sekuentziak obraren esanahien, quipoen<sup>3</sup> sekuentzia bat sortzen dute<sup>4</sup>.

Eta horrela sortu zen

A *Árvore*: film –meditazioa, 30 segundoko sekuentziak dituen, bata besteari kateatuak, geografik, denborak, biziak eta hilaik metalezko ezpata batekin lotzeko – muntaiak – hutsuneak batuz – sekuentzien barne-presentziak.

A *Árvore*: erraldoi baten metamorfosiari buruzko filma.

A *Árvore*: hutsuneen bidez aitarekin izandako elkarriketza.

A *Árvore*: orbita-planoak, igaro garen lekuak, agian gure arbasoak igaroko ziren lekuak lotu nahi dituztenak.

A *Árvore*: Rio de Janeiro, Brasilia, Oporto, Lisboa, Belen.

A *Árvore*: ez dagoen eta han den aitaren erretratu.

A *Árvore*: zinemak absentsziak filmatzen ditu, funtsean fantasmagorikoa da.

A *Árvore*: arrastoei jarraitzea, gauza guztien mugimenduz eta metamorfosiaz fidaturik.

A *Árvore*: beste guztien ondoan, mamuekin dabilen bizi-film luze baten kapitulua.

A *Árvore*: ezpataren zinema, zinema arte martzial gisa.

A *Árvore*: bidaiariak bidea ezagutzen badu, bidean galdu delako da.

A *Árvore*: kateatzen diren hainbat keinuren bigarren kapitulua.

A *Árvore*: egunkariaren lehen pertsona munduaren barruan dago eta ez kanpoan – *Niak* mundura eramaten du eta ez alderantziz.

A *Árvore*: gurutzatzeak, absentsziak, mamuak.

A *Árvore* filmean nire mamuak ohoratu nahi ditut, ezezagun bat ohoratu beharrene. Filma ez da Bruce Baillieri egindako elegia bat, baizik eta gogoeta bat, bere obra mugitzen duen horretatik abiatuta: muga, elkartzeko nahia, metamorfosia, Ameriak.

1. Aitá az *Árvore*s cantam. Guilherme Vaz-en O Anjo sobre o Verde diskoaren azalean grabatutako esaldia (disko ez komertziala, artistak argitaratua), 2001.  
2. Brasilen tximeletei emandako izena.  
3. "Aditek diotenez, korapiloz egindako eta quipo izeneko inken lokarri bitxiak, ziurrenik buruzagiek eta kontulariak erabili zituzten zergak fiskalizatzeko. Zerbakizio eta testuzko informazioa transmititzen zuten. Koloretako lokarriek ikertzaileak nahastu dituzte, konkistatzaile espainiarrek duela 500 urte lehen aldiz deskribatu zituztenetik. Aditu gehienek uestez, kontulartzat motaren bat dira, baina inork ez du lotu horiek deskribatzea. Marcelo Roïemberg kazetariak, Sao Paulojo Unibertsitateko egunkariaren webgunean honako hau dio: "Baina, azken finean, zer dira quipok? Hitzak "torapilo" esan nahi du peruraren arbasoen hizkuntzan. Eta korapilo horien bidez erregristrazten ziren, hain zuzen, datuak garrantzitsuenak: lodiera eta kolore desberdineko korapilok, quipucamayoc-ek –inken gizarteai idazkera-mota horretan ardatzak zirenak– interpretatuko zituzten mezuak osatuz." Hemen aipatuz: *Guilherme Vaz: Uma Fração do Infinito*. CCBB (Centro Cultural Banco do Brasil), 2016.  
4. Letra etzanak nik jarriak dira.

Paris, 2022ko ekaina. G. Vaz-i Ana Vaz